

**Nafarroako Gobernuaren Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuko Industria
Antolamenduaren, Azpiegitura Energetikoen eta Meatzeen Zerbitzurari**

_____ (e)k, adinez nagusia, _____ NAN
zenbakidunak, eta jakinarazpenetarako honako helbidea duenak
_____ kalea,
herria, _____ Posta Kutxa, erakunde honen aurrean agertzen da, eta Zuzenbidean egokiena den moduan,

HONAKOA DIO:

2024ko otsailaren 6an Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zela Magnesitas Navarras SA enpresak sustatutako "Artesiagako (Esteribar-Baztan, Nafarroa) magnesitak ustiatzeko proiektua" udalez gaindiko proiektu sektorial deklaratzeko duen Nafarroako Gobernuaren erabakia; Hainbat arrazoi direla medio, estimu berezia diot proiektu honek eragiten dion eremuari. Hori dela eta, idazki honen bidez, garaiz eta behar bezala, honako alegazio hauek egiten ditudala:

ALEGAZIOAK:

1.- Meatze-proiektu honen eraginpeko eremua garrantzi haundikoa da bai naturaren ikuspegitik, bai Baztango abeltzaintza tradizionalarendako ere. Bazkaleku erdinaturalak ditu, kontserbazio-egoera onean daudenak eta kalitate bikainekoak direnak. Abeltzaintza tradizionala landa-populazioa finkatzeko gaitasun frogatua duen sektorea da eta bere jarduera bateragarria eta beharrezkoa da habitat erdinatural hauek eta paisaia mantentzeko. Aldiz, meatzaritzaren eta artzaintzaren arteko elkarbizitza ezinezkoa da, bazkalekuak desagertuko direlako, asotsek eta bibrazioek kalte negatiboak eraginen dituztelako, eta aire zabaleko meatzaritzak sortutako errautsak eta agregakinek landaredia eta baliabide hidrikoak kutsatuko dituztelako. Proiektuak eremua bazkaleku komunal gisa erabiltzeko aukera bertan behera utziko luke, eta inguruko bazkalekuak erabiltzean oinarritutako ustezko konponbidea ezinezkoa da, gaur egun toki horiek ere erabiltzen direlako jada.

2.- Meatze-proiektu hau garatuz gero, galtzeko arriskuan dauden espezieei kalte larria eraginen litzaeke, hala nola okil gibelnabarrari, ugatzari edo Pirinioko muturluzeari, bai eta bertze espezie babestu batzuei ere, saguzar espezie desberdinak kasu. Espezie horiek erabiltzen dituzten habitatak (bazkalekuak, zuhaixka-landaredia, pagadiak, erreka eta erreka-eremuak) nabarmen eta atzera-bueltarik gabe aldatuko lirateke. Garrantzi nabaria dute ere interes haundiko flora- eta fauna-espezieak (herpetofauna) dituzten azalera txikiko habitatek (mikrohabitatak), eta hauek ere suntsituko lirateke. Eragindako inpaktu gehienak konponezinak izanen lirateke, bai meatze-proiektuaren ezarpen-eremuan bertan, bai trafiko astunerako errepidearen egokitzapenak (eragin haundia izanen lukeena herri intereseko pagadi batean), eta elektrizitate-hornidurarako linea elektrikoak ekarriko lukeenagatik ere. Kaltetutako eremu guztia babestuta dago Europa mailako Natura 2000 Sarearen baitan kokatzen diren Alduide Mendiko KBEren eta Belateko KBEren baitako esparruan dagoelako.

3.- Meatze-ustiapenak Alduide Mendiko KBEaren funtsezko elementu gehienei kalte egingen lieke. Eragin onartezina izanen luke bai babestutako eremuan zein bere osotasunean, inpaktuak eremu jakin batean kokatuta egon arren, eragina eremu osoan izanen lukeelako. Hau guztia jada Auzitegi Gorenak 2017ko epai batean onartu zuen, MAGNAk Zilbetin, KBE berdinaren baitan, antzeko bertze ustiapen bat irekitzeko zituen asmoak gibelerat bota zituenean.

4.- Lur planeta krisi haundi batean murgilduta dago Klima Aldaketaren, ingurunearen degradazioaren eta biodibertsitatearen galeraren ondorioz, erregai fosilen kontsumoak eta baliabideen gehiegizko ustiapenak eraginda. Proiektu honek inpaktu horietan sakontzen du, magnesita ateratzeko eta prozesatzeko erregaiaren kontsumoa haunditzen duelako eta ekosistemak are gehiago degradatzen dituelako. Giza jarduerak biosferan dituen inpaktuak murriztu behar dira, hau da, kontsumoa murriztu behar da eta, hortaz, ez da utzi behar horrelako meatze-proiektuak hedatu daitezen.

Horregatik guztiagatik, **ESKATZEN DUT:**

Agiri hau aurkeztuta, onartua izan dadila, eta, ondorioz, aitzineko alegazioak aintzat hartuak izanik, aipatutako proiektua bertan behera uztea erabaki daiela.

_____ (e)n, 2024ko
_____ (a)ren _____ (e)an

Sinatua:
